



JARRAIBIDEAK, ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIAREN, IKASTURTEA ANTOLATZEKO DIRENAK HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA (HLE), FISIOTERAPIAKO ESPEZIALISTA, OKUPAZIO-TERAPIAKO ESPEZIALISTA, ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE (ZHI) ETA LOGOPEDA DIREN HEZITZAILE LAN-KONTRATUDUNEI DAGOKIENEZ, ETA ORDEZKARITZA KUPOKO ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO (EHI) IRAKASLEEI DAGOKIENEZ

2026-2027 IKASTURTEA

Hezkuntza Sailak [haur eta lehen hezkuntzako](#) eta [bigarren hezkuntzako](#) ikastetxe publikoen antolamendua arautu du, eta hobetzeko estrategia bideratu du, Hezkuntza Politiketako sailburuordearen ebazpen bidez. Ebazpen horiek hezitzaile lan-kontratudunei zein irakasleei eragiten diete.

Jarraibide hauek aipatutako ebazpenen osagarriak dira, eta kolektibo horiei dagokienez 2026-2027 ikasturteko funtzionamendu-alderdiak zehaztea dute helburu.

Jarraibide hauek gauzatu behar dira langileen lan-baldintzak errespetatuz; izan ere, HLE-en, fisioterapeuten, okupazio-terapeuten eta ZHlen kasuetan, baldintza horiek Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasleen eta hezitzaileen IX. hitzarmen kolektiboan ezartzen dira (EHAA 2025/11/6). Ikus II. eranskina (eginkizunak), 23. artikulua (lanaldia eta lan-egutegia), 24. artikulua (ordutegiak) eta 69. artikulua (ibiltaritzagatikako konpentsazioa).

Jarraibide hauen xede diren lan-kontratuko langileak BiziLab, Inklusioa, Bizikidetza eta aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren menpe edo ordezkartzaren menpe daude funtzionalki eta organikoki. Hala ere, ikastetxeko zuzendaritza arduratzen da eguneroko lanaz eta langile horiei dagokienez egin beharreko kudeaketa gehienaz.

Hezkuntza-langileek lankidetzan jardungo dute hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunean inplikaturik dauden gainerako profesionalekin, irakasle tutoreekin eta irakasle aholkulari edo orientatzaileekin. Nolanahi ere, irakasle tutoreak du horren guztiaren ardura. Ordezkaritzako kupoko EHI-Logopeda langileek ere parte hartuko dute hezkuntza- laguntzako premia (HLBP) dituzten ikasleei ematen zaien erantzunean. Profesional guztien jarduketak ikasle bakoitzaren Jarduera Plan Pertsonalizatuan (aurrerantzean, JPP) jasota daude, eta curriculum-egokitzapenak eta aplikatu beharreko laguntza-neurriak jasotzen dira bertan. Inplikaturikotako profesionalak koordinatu egiten dira JPParen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Ikasgela da hezkuntzako profesional guztiek esku hartzeko espazio natural eta lehentasunezkoa; salbuespen gisa, esku-hartzea gauzatzeko espazio bereizi bat behar denean, ikastetxeei leku egoki bat emateko eskatzen zaie. Era berean, zentroko material suntsikorra eta bestelako tresna arruntak (ordenagailua, telefonoa...) erabiltzeko aukera eman behar diete profesional horiei.

Ikastetxeak bere gain hartu behar du langile horiek behar duten material espezifikoaren kostua, gehienez ere 180 eurokoa, profesionalak ikastetxeko zuzendaritzari eskaera formal justifikatua egin ondoren. Era berean, maileguan emandako laguntza-produktuak mantentzeaz arduratu behar du, eta behar bezala itzuli, horiek erabiltzea beharrezkoa ez denean; mantentzeak kostu ekonomikoa badu, 180 eurora arte estali behar du.





Jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleak dituzten ikastetxeek krisi-egoeretan jarduteko protokolo bat ezarri behar dute, eta, horretarako, ikastetxeko profesional guztien inplikazioa behar da. Oro har, portaera-nahasmenduak, lehenik, irakasle arruntek artatu behar dituzte, eta, bigarrenik, PTko irakasle laguntzaileek. HLE langileek, ikastetxeko beste edozein profesionalak bezala, autorregulazioa sustatzeko arloetan lagundu dezakete, betiere dagokion ikaslearen JPPak hala aurreikusten badu.

PROFESIONALEN JARDUERA-EREMUA

Lehen esan bezala, jarraibide hauen xede diren langileek parte hartzen dute behar duten ikasleen hezkuntza-erantzunean, beren JPParen esparruan.

Kolektiboen eginkizun zehatzak II. Hitzarmenaren II. Eranskinean jasotzen dira. Hala ere, oro har:

HLE langileek HLE behar duten HPBak dituzten ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunean parte hartzen dute, esleituta dituzten ikasleen *Autonomia eta irisgarritasuna garatzeko programa* gauzatzen parte hartuz. Programa eskola-egunean gauzatzen da, eta lekualdatzeei, transferentziei, motrizitate finari, higiene pertsonalari, elikadurari, jantziei, segurtasunari eta funtzio betearazleei dagokie, programan ezarritako orientabideei jarraituz.

Fisioterapiako espezialistek HPBak dituzten ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunean parte hartzen dute. Ikasle horiek curriculuma egokitu behar dute, urritasun motor larriaren ondorioz, curriculum-esparruaren barruan eta JPP baten parte gisa. Helburua da ikasle horiei curriculum arruntan edo espezifikotan parte hartzeko eta sartzeko aukera ematea, hezkuntza- ingurune naturalean (ikasgela, patioa, komuna, korridoreak...) eta eskola-ohituretan oinarritutako esku-hartze eredu batetik. Gaitasun funtzionalak garatzeko esku-hartzea astean gehienez 30 edo 45 minutuko bi saiotan egiten da.

Okupazio-Terapiako espezialistek HPBak dituzten ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunean parte hartzen dute, behar horiek desgaitasunaren ondorioz direnean, JPPan jasotakoaren arabera. Ikasle horien parte hartzea eta curriculum arruntan edo espezifikorako sarbidea erraztea da helburua eta horretarako ikaslearen jardunean eragiten duten trebetasun funtzionalak, zereginen ezaugarriak eta ingurune oztopoak baloratuz, beharrezkoak dituen laguntza tresnak aukeratu eta erabilerarako beharrezko orientabideak ematen ditu. Era berean, laguntza-produktu horien kudeaketan laguntzen du (eskaera, inbentarioa, mailegua, lekualdaketa eta konponketak). Lurralde-biltegiko arduradunak bere gain hartzen du kudeaketa hori.

ZHiek entzumen-desgaitasuna edo gor-itsutasuna (gidari-interprete gisa) duten ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunean parte hartzen dute. Ikasle horiek zeinu-hizkuntza behar dute irakasteko eta ikasteko prozesuan komunikazio-hizkuntza gisa, eta harreman estua dute irakasle-taldearekin edo JPParen esparruan parte hartzen duten beste profesional batzuekin, ikasteko, komunikatzeko eta hezkuntza-testuinguruan parte hartzeko oztopoak gaindituz edo arinduz. Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Helduen Hezkuntza Iraunkorreko irakaskuntza arautuetan esku hartzen du, eta, beharrezkoa denean, derrigorrezko irakaskuntzetan esku hartu ahal izango du, saileko organo eskudunek berariazko baimena eman ondoren beharrezkoa denean.



EH irakasleek eta logopeda lan-kontratudun langileek funtzio berberak dituzte, baina lan-lotura desberdinak dituzte Hezkuntza Sailarekin. Langile horiek komunikazioaren eta hizkuntzaren esparruan adierazitako HLB Pak dituzten ikasleekin betetzen dituzte beren eginkizunak.

HPBak dituzten ikasleak artatzeko prozesua eta irizpideak oinarri dute 15. dokumentuan ezarritakoa: ["Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapena esku hartzeko eredu inklusiboaren barruan"](#).

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Jarraibide hauen xede diren profesional guztien lan-egutegia iraileko lehen lanegunean hasi eta ekaineko azken lanegunean amaituko da. Uztaila eskolarik gabeko lan hilabetea da, eta langileek administrazioaren esanetara egon behar dute.

2026ko urriaren 1a baino lehen, langile bakoitzari bere egutegia eta ordutegia eman behar zaizkio.

HLE langileen alderdi espezifikoak:

Ondoko estekan jasotzen dira [HLE-en ordutegiek bete behar dituzten baldintzak, hitzarmen kolektiboaren arabera](#). Laburbilduz:

- HLEen egutegia eta ordutegia atxikita dauden ikastetxearena da. Zerbitzuak zentro batean baino gehiagotan ematen badira, inola ere ez bi baino gehiago, asteko lanaldiaren zatirik handiena egiten duen ikastetxearena izango da egutegia eta ordutegia.
- Ikastetxeko zuzendariak HLE langile guztien sarrera-ordua, irteera-ordua eta asteko egun bakoitzeko materialak prestatzeko, koordinatzeko eta beste eginkizun batzuetarako denboraren banaketa ikasleen eta ikastetxearen beharren arabera egiten du, eta HPBak artatzen dituen taldearen iritzia kontuan hartuta, HLEak barne.
- Zuzendaritza-taldeari dagokio ikastetxeko langile guztien jardunaldiak antolatzea, eta erabakitzea, ikasturte bakoitzaren hasieran, zer irizpideren arabera esleituko zaizkien langileei ikastetxeko unitateak edo ikasleak. Ikasturtea hasi aurretik, zuzendaritza-taldek, irizpide pedagogikoa erabiliz, ikasleei eta programei (laguntza intentsiboko programak edota helduarora igarotzeko programak) esleituko dizkie langileak. Horretarako programen eta ikasleen ezaugarriak eta langileen gaitasunak eta esperientzia kontuan hartuko ditu. Kontuan hartu beharreko irizpideen artean, bultzatuko da zailtasun handienak dituzten edo talde profesionalaren jarraikortasuna behar duten talde edo ikasleei behin betiko destinoa duten langileak esleitzea.
- Lanaldi osoko HLE langileek astean 30 orduko presentzia dute zentroan; horietatik 25 arreta zuzenekoak dira, eta beste 5 (ordu 1 egunean) materialak prestatzeko eta koordinatzeko.
- Lanaldi erdiko HLE langileek astean 15 orduko presentzia dute zentroan; horietatik 12,5 arreta zuzenekoak dira, eta beste 2,5 (30 minutu egunean) materialak prestatzeko eta koordinatzeko.
- Zentroak jardunaldi jarraitua duenean, HLE langile guztien lanaldia jarraitua da.
- Ikastetxeak jardunaldi zatitua duenean, ikastetxeko zuzendariak erabakitzen du lanaldi osoko HLE bakoitzaren lanaldia (zatitua edo jarraitua), ikasleen premiei behar bezala erantzuteko.
- Lanaldi erdiko hezkuntza-laguntzako espezialistek lanaldi jarraitua dute beti.
- Lanbide heziketa edota ZIG geletako ikasleen praktiketako zentroa ikastetxea bezala kontsideratzen da; hala ere, ikastetxeko ordutegia mantenduko da posible den heinean, bestela HLEarekin adostu beharko da.
- HLE langileen sarrera- eta irteera-ordutegiak ez du zertan bat etorri zerbitzuak ematen dituzten ikastetxeko ikasleen sarrera- eta irteera-ordutegiarekin.
- Hedatze Programari atxikitako ikasleen kasuan, HLE langileek curriculum indartzeko

jardueri lotutako ordu-tartean ematen dute arreta. Arreta hori ere arreta zuzeneko lan denboratzat hartzen da.

- Jantokiko arretari dagokionez:
 - Hala jantokian nola jolastokiko zainketa-zereginetan, espezialistaren esku-hartzea autonomia pertsonaleko edo sozialeko programa bati loturik egongo da beti. Programa honek identifikatuko du ikasleak HLEen arreta-premia duen edo ez duen bazkalorduan, eguerdiko jolastokian dagoen denboran edo bi egoeretan.
 - Ikasle guztiak –premia bereziak izan edo ez– hartuko dira kontuan jantokiko begiraleen ratioak kalkulatu ahal izateko. Jantokiko begiraleek lankidetzan jardungo dute, kualifikaziorik gabe (beren hitzarmenean adierazten den bezala), jantokian eta atsedenaldietan ikasleei atentzioa, zaintza eta arreta emateko zereginak beteko dituzte, bazkal aurretik zein ondoren, gainerako ikasleekin egiten duten bezala, premia bereziak izan zein ez.
- Hezkuntza-laguntzako espezialistek ikasleari laguntzen badiote eskola-ordutegia baino gehiago luzatzen diren edo gaua etxetik kanpo igarotzea eskatzen duten jarduera osagarrietan, ikastetxean gainerako langileei aplikatzen zaizkien neurriak aplikatzen dira. Irakasleentzako neurririk ez balego, egun bakoitzeko beste egun batekin konpentsatuko da ekaineko klaserik gabeko aldian, betiere 3 eguneko gehieneko mugarekin, baldin eta etxetik kanpo igaro bada gaua.

Fisioterapeuten alderdi espezifikokoak:

- Fisioterapiako espezialisten egutegia erreferentziako ikastetxe publikoarena da, eta halakotzat hartzen da asteko lanaldian dedikazio handiena ematen duena. Aurreko irizpidearekin ezin denean erreferentziatzko zentro bat zehaztu, BiziLabek zehaztuko du zein eskolako egutegia izango den.
- Fisioterapeutek ikasleekin duten zuzeneko esku-hartzea ikasturtearekin hasi eta amaitzen da.
- Iraileko lehen hamabostaldian, zeregin hauek egiten ditu: ikasleen garapen motorraren hasierako balorazioak, profesionalekiko koordinazioa, urteko plana egitea..., hargatik eragotzi gabe ikasleei zuzeneko arreta ematea.
- Ekainean eskolak amaitu ondoren, banakako txostenak eta urteko memoria egiten dituzte, eta inklusioari laguntzeko aholkulariei ematen zaizkie.
- Lanaldia zatitua edo jarraitua da, artatzen dituen ikasleen zentroetako jardunaldiaren arabera. Ordutegia ikastetxeen eta HPBak dituzten ikasleen ordutegira egokitu behar da beti, egokitu gabeko arloetan parte hartzea oztopatu ez dezan. Nolanahi ere, ostiraletako ordutegia 9:00etatik 15:00etara izango da, eta azken bi saioak BiziLabeko inklusioari laguntzeko aholkulariarekin eta gainerako fisioterapeutekin koordinatzeko erabili ahal izango dira, koordinaziorako lurralde-planaren arabera.
- Lanaldi osoko fisioterapeutek astean 30 orduko presentzia dute zentroan; horietatik 23 arreta zuzenekoak dira, eta beste 7 koordinazio-lanetan, lan- saioak edo materialak prestatzen eta lanarekin lotutako txostenak egiten aritzen dira.
- Lanaldi erdian lan egiten duten fisioterapeutek lanaldi jarraitua dute beti, eta astean 15 ordu ematen dituzte bertan; horietatik 11,5 arreta zuzenekoak dira, eta beste 3,5 materialak prestatzekoak, koordinaziokoak eta beste funtzio batzuetakoak.
- Fisioterapiako espezialistek erreferentziako BiziLabeko kokapenean hasi eta amaitzen dute lanaldia. Hala ere, lanaldia hasi edo amaituko duen ikastetxea bere ohiko bizilekutik hurbilago badago, bertan egiten du. Eginkizunak betetzeagatik egiten diren joan-etorriak arreta zuzeneko denboratzat hartzen dira.

Okupazio-terapiako espezialisten alderdi espezifikokoak:

- Okupazio-terapiako espezialisten egutegia erreferentziako ikastetxe publikoarena da. Erreferentziako ikastetxea ordu gehien ematen den ikastetxea da. Aurreko irizpidearekin ezin denean erreferentziako zentro bat zehaztu, BiziLabek zehaztuko du zein eskolako egutegia izango den.
- Langile horiek ikasleekin duten zuzeneko esku-hartzea ikasturtearekin hasi eta amaitzen da.
- Irailean honako lan hauek egiten dituzte: plangintza, ikasleen balorazioak, materialen lekualdaketa, koordinazioa, etab.
- Ekainean eskolak amaitu ondoren, banakako txostenak egiten dituzte. Txosten horiek irakasle tutoreei eta inklusioari laguntzeko aholkulariei ematen dizkiete, eta urteko memoria ere egiten dute.
- Lanaldi osoko okupazio-terapiako espezialistek 30 orduko presentzia dute astean zentroetan; horietatik, 23 zuzeneko arretakoak dira, eta beste 7 koordinazio- lanetan, lan-saioak edo materialak prestatzen eta lanarekin lotutako txostenak egiten aritzen dira.
- Okupazio-terapiako espezialistek lanaldi erdian lan egiten dute beti lanaldi jarraituan, eta astean 15 orduko presentzia dute; horietatik 11,5 arreta zuzenekoak dira, eta beste 3,5 materialak prestatzekoak, koordinaziokoak eta beste funtzio batzuetakoak.
- Lanaldia zatitua edo jarraitua da, artatzen dituen ikasleen zentroetako jardunaldiaren arabera. Ordutegia ikastetxeen eta HPBak dituzten ikasleen ordutegira egokitu behar da beti, egokitu gabeko arloetan parte hartzea oztopatu ez dezan. Nolanahi ere, ostiraletako ordutegia 9:00etatik 15:00etara izango da, eta azken bi saioak BiziLabeko inklusioari laguntzeko aholkulariekin eta gainerako okupazio-terapiako espezialistekin koordinatzeko erabili ahal izango dira, koordinaziorako lurralde-planaren arabera.
- Okupazio-terapiako espezialistek erreferentziako BiziLabeko kokapenean hasi eta amaituko dute lanaldia. Hala ere, lanaldia hasi edo amaituko duen ikastetxea edo material-biltegia bere ohiko bizilekutik hurbilago badago, zentro hori izango da lanaldia hasi eta bukatzeko lekua. Lana burutzeagatik sorten diren joan-etorriak arreta zuzeneko denboratzat hartzen dira.

ZHIen alderdi espezifikokoak:

- Langile horien egutegia langile horiek atxikita dauden ikastetxe publikoarena da; zentro bat baino gehiago hartzen badituzte, berriz, astean dedikazio handiena duen zentroarena.
- Lanbide heziketa edota ZIG geletako ikasleen praktiketako zentroa ikastetxea bezala kontsideratzen da, hala ere, ikastetxeko ordutegia mantenduko da posible den heinean, bestela ZHIarekin adostu beharko da.
- Lanaldi osoko ZHI langileek astean 30 orduko presentzia dute zentroan; horietatik 25 arreta zuzenekoak dira, eta beste 5 materialak prestatzekoak, koordinaziokoak eta beste funtzio batzuetakoak.
- Lanaldi erdiko ZHI langileek astean 15 orduko presentzia dute; horietatik 12,5 arreta zuzenekoak dira, eta beste 2,5 (30 minutu egunean) materialak prestatzeko, koordinatzeko eta beste funtzio batzuetarako.
- Lanaldia arreta ematen duen zentroarena edo zentroena da, zatitua edo jarraitua. Lanaldi jarraituan, lan-plana egokituko da, ikasle guztiei arreta egokia ematen zaiela bermatzeko.
- ZHIko lanaldi erdiko langileek lanaldi jarraitua dute beti.
- Langile horiek ikasleekin duten zuzeneko esku-hartzea ikasturtearekin hasi eta amaitzen da.
- Ikasleak irailean sartu arte, irakasle-taldearekin koordinatzen dira ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko (irakasleak sentsibilizatzea, ikasgaiak prestatzeko materiala aurreratzea, arreta-ordutegia prestatzea, etab.).
- Ekainean eskolak amaitu ondoren, banakako txostenak egiten dituzte, eta irakasle tutoreei,



inklusioari laguntzeko aholkulariei eta entzuteko desgaitasuna duten ikasleei arreta emateko lurralde-koordinatzaileari ematen dizkiete.

- ZHlek ikasleen interpretazioa hasten edo amaitzen duten ikastetxean hasi eta amaituko dute lanaldia.
- Oro har, ahal den neurrian, ez da onartzen interpretazio-saioak etenik gabeko 3 ordutik gorakoak izatea, eta gutxienez hamabost minutuko atsedenaldiak bermatzen dira denbora hori igaro ondoren.
- ZHlek ikasleari laguntzen badiote eskola-ordutegia baino gehiago luzatzen diren edo gaua etxetik kanpo igarotzea eskatzen duten jarduera osagarrietan, ikastetxean gainerako langileei aplikatzen zaizkien neurriak aplikatzen dira. Irakasleentzako neurririk ez balego, egun bakoitzeko beste egun batekin konpentsatuko da ekaineko klaserik gabeko aldian, betiere 3 eguneko gehieneko mugarekin, baldin eta etxetik kanpo igaro bada gaua.

Ordezkaritzako kupoko EHI-logopeden alderdi espezifikoak:

- Langile horien egutegia erreferentziako ikastetxearena da, eta erreferentziako zentrotzat hartuko da asteko lanaldiaren dedikazio-ehuneko handiena duena.
- Langile horiek ikasleekin duten zuzeneko esku-hartzea ikasturtearekin hasi eta eskolak amaitzen direnean amaitzen da.
- Iraileko lehen hamabostaldia beste profesional batzuekin eta familiarekin koordinatzen da balorazio berriak egiteko, halakorik balego, bai eta ikasleen lan-programak edo curriculum-egokitzapenak egiteko ere, eta haien ordutegia eta egutegia (lan-plana) lantzen dituzte, ikasleei zuzeneko arreta emateko aukera alde batera utzi gabe.
- Ekainean eskolak amaitu ondoren, banakako balorazioak eta txostenak egiten dituzte, eta irakasle tutoreei eta inklusioari laguntzeko aholkulariei ematen dizkiete, baita urteko memoria egin ere.
- Asteko lanaldia Lehen Hezkuntzako irakasleena bezalakoa da, 30 ordukoa, honela banatuta: 21 ordu ikasleekin esku hartzeko eta 9 ordu beste jarduera batzuetarako.
- Lanaldia arreta ematen duen zentroarena edo zentroena da, zatitua edo jarraitua. Lanaldi jarraituan, lan-plana egokituko da, ikasle guztiei arreta egokia ematen zaiela bermatzeko. Ostiraletako ordutegia erreferentziako ikastetxeari egokituko zaio.
- EHI irakasleek eta logopedek ikasleei zuzeneko arreta ematen hasten edo amaitzen duten ikastetxean hasi eta amaituko dute beren lanaldia, nahiz eta hori ez izan haien erreferentziako ikastetxea.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA EGITEKO ETA KUDEATZEKO PROZEDURA

Honako prozedura hau aplikatu behar da bai egutegiaren eta ordutegiaren hasierako prestaketan eta izapidetzean, bai ikasleei arreta emateko inguruabarrak aldatzen direlako (iraupena, intentsitatea...) edo aurreikusi gabeko beste inguruabar batzuk gertatzen direlako aldaketak egin behar direnean. Aldaketa hauek argudiatuak eta salbuespenezkoak izango dira.

Ordutegiak egiteko prozedura gaindituta, langileak ordutegiarekin ados ez badaude, 10 egun naturaleko epean jakinaraziko dute ordutegi proposamen berria. Nolanahi ere, erreferentziako ikastetxeko zuzendariak eta, hala badagokio, lurralde-ordezkaritzak aztertuko dute proposamen hori, eta 10 egun naturaleko epean jakinaraziko zaie erabakia langileei. Langileak ez badaude ados ordutegiarekin, Batzorde Parekidearen mende jarriko da, eta hark, ahal den neurrian, emaitza jakinaraziko du 10 egun naturaleko epean, langileak desadostasuna jakinarazten duenetik aurrera.

HLE-en egutegi-ordutegia (lan-plana) prestatzea:

1. Ikastetxeko zuzendariak HLEen ordutegia prestatzen du honako profesional hauekin lankidetzan: inklusioari laguntzeko aholkularia, irakasle tutorea, aholkularia edo orientatzailea, pedagogia terapeutikoko irakasleak eta HLEak.

Hori egiteko, HLEak behar dituzten ikasle guztien beharrak identifikatu behar ditu, behar hauei erantzun egokia emateko, jantokian eta/edo jantokiko patioan autonomia pertsonaleko edo sozialeko programan BiziLabeko inklusioari laguntzeko aholkulariak hala ezarrita duten ikasleen arretari lotutako premiak barne.

2. Ikastetxean bilduta, zuzendariak (edo hark eskuordetutako profesionalak) HLE langileei eta inklusioari laguntzeko aholkulariari aurkezten die arretaren banaketa eta intentsitatea. Inklusioari laguntzeko aholkulariak ontzat ematen du ordutegia, arreta ematen zaien ikasleak eta haien intentsitateak aholkulari horrek aurreikusitakora egokitzen direla egiaztatu ondoren. Bilerak horren akta egiten da.
3. Zuzendariak HLE langileen ordutegia sartzen du ordutegi-koadroen (EDD) aplikazio informatikoan. Ikasturtean zehar ordutegietan egiten diren aldaketa guztiak ere EDDan erregistratu behar dira.

HLE profesional bakoitzaren ordutegiak zehatz-mehatz jasotzen ditu bete behar dituen zereginak, banaketa honen arabera:

- Zuzeneko arreta ikasgelan
 - Jolas-orduan zuzeneko arreta ematea (autonomia-programan hala agertzen bada)
 - Zuzeneko arreta jantokian (autonomia-programan hala agertzen bada)
 - Zuzeneko arreta patio-jangelan (autonomia-programan hala agertzen bada)
 - Koordinazioa, materialen prestaketa
 - Ibiltaritzak (hala badagokio)
4. Jardun murrizketak dauden kasuetan, lanpostuari dagokion ordutegi bakarra egingo da. Ondoren murrizketari dagokion proportzioan zatituko da ordutegia. Murrizketa eskatu duena eta hori osatzera datorren langilea ezingo dira aldi berean lanean egon.
 5. Adinagatiko murrizketen kasuan arreta zuzenari dagokion murrizketa bakarrik osatuko du ordezkioak, lanaldia osatzeko geratzen den denbora titularrarekin eta beste profesionalekin koordinatzeko erabiliko du.

Fisioterapeuten egutegi-ordutegia (lan-plana) prestatzea:

1. Fisioterapiako espezialistek inklusioari laguntzeko aholkulariarekin koordinatuta ezarritako jarduketa-irizpideetan oinarrituta egiten dute lan-plangintza.
2. Irailean, erreferentziako ikastetxearen egutegia eta *dagozkion eranskinak* behar bezala beteta aurkeztu dizkie inklusioari laguntzeko aholkulariei : I. eranskina – Asteko ordu-banaketa, II. eranskina – Guztizko ordu-zenbaketa, III. eranskina – Esleitutako ikastetxeen ordutegiak eta IV. eranskina – Ikasleen zerrenda.
3. BiziLabeko kokapeneko koordinatzaileak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bideratzen du dokumentazio hori, bere oniritziarekin, eta hark 15 eguneko epea du aldaketak sartzeko. Bestela, onartutzat jotzen da.
4. Lurralde-arduradunak Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntzako Berariazko Premien Zerbitzua) bidaliko dizkio I. eta II. eranskinak.

Okupazio-terapiako espezialisten egutegi-ordutegia (lan-plana) prestatzea:

1. Okupazio-terapiako espezialistek, inklusioari laguntzeko aholkulariekin koordinatuta, ikasturte hasieran *dagozkion eranskinak* egiten dituzte: I. eranskina - Ikasleen zerrenda eta II. eranskina - Asteko ordu-banaketa.
2. BiziLabeko kokapeneko koordinatzaileak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bideratzen du dokumentazio hori, bere oniritziarekin, eta hark 15 eguneko epea du aldaketak sartzeko. Bestela, onartutzat joko da.
3. Lurralde-arduradunak I. eta II. eranskinak bidaliko dizkio Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntzako Berariazko Premien Zerbitzua).

Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzak baimena eman ondoren, lan- plana alda daiteke (aurre matrikulazio-aldian eta laguntza-produktuen eskaera eta jasotze aldian edo oztopo arkitektonikoak kentzeko eskaera uneetan).

ZHlen egutegi-ordutegia (lan-plangintza) prestatzea:

1. Ikastetxeko zuzendariak ZHlen ordutegia prestatzen du, irakasle orientatzaileekin, entzumen-desgaitasuna duten ikasleak eskolatzeko koordinatzailearekin eta ZHlarekin berarekin lankidetzan.
2. Iraileko lehen hamabostaldian, *dagozkion eranskinak* behar bezala beteta bidaltzen dizkio BiziLabeko kokapeneko koordinatzaileari, berrikus ditzan: I. eranskina - Egutegia eta II. eranskina - Ordutegia, ikastetxearen egutegiarekin eta inplikaturako ikasleen ordutegiarekin batera. BiziLabetik aldaketaren bat egokitzen jotzen bada, ikastetxeko zuzendariari jakinaraziko zaio.
3. BiziLabeko kokapeneko koordinatzaileak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bideratzen ditu egutegiak eta ordutegiak, bere oniritziarekin, eta hark 15 eguneko epea du aldaketak sartzeko. Bestela, gaitututzat joko dira.
4. Lurralde-arduradunak bi eranskinak bidaliko dizkio Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntzako Berariazko Premien Zerbitzua).

EHI-logopeden egutegi-ordutegia (lan-plana) prestatzea:

1. EHI irakasleek eta logopeda lan-kontratadun langileek lan-plan batean antolatzen dituzte esleiturako ikastetxeen ordutegia eta ikasleen zerrenda. Jarduera-irizpideak inklusioari laguntzeko aholkulariekin koordinatuta ezartzen dira.
2. Irailaren 30a baino lehen, plana aurkeztu diete inklusioari laguntzeko aholkulariei, erreferentziako ikastetxearen egutegiarekin eta *dagozkion eranskinak* batera, behar bezala beteta: I. eranskina – Asteko ordu-banaketa, II. eranskina – Guztizko ordu-zenbaketa, III. eranskina – Esleiturako ikastetxeen ordutegiak eta IV. eranskina – Ikasleen zerrenda.
3. BiziLabeko kokapeneko koordinatzaileak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bideratzen du dokumentazio hori, bere oniritziarekin, eta hark 15 eguneko epea du aldaketak sartzeko. Bestela, onartutzat joko da.
4. Lurralde-arduradunak Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntzako Berariazko Premien Zerbitzua) bidaliko dizkio I. eta II. Eranskinak

PRESTAKUNTZA

Prestakuntza hezkuntza-administrazioak kolektibo horiei esleitutako eginkizun eta zereginekin lotuta dago, kolektibo bakoitzaren lanaren espezifikotasuna kontuan hartuta. Aniztasunerako eta Inklusiorako zuzendariak Hezkuntza Sailaren premien eta lehentasunen arabera erabakitzen du prestakuntzaren zentzua, inplikaturako kolektibo profesionalen proposamenak kontuan hartuta.

Prestakuntza ekaineko azken astean egiten da, edo, salbuespen gisa, iraileko lehenengoan, eta BiziLabek antolatzen du. Prestakuntzak euskaraz jarraitu ahal izatea bermatuko da.

Prestakuntza horietan parte hartzen dela bermatzeko, beharrezko antolamendu-neurriak hartzen dira ikastetxean. Era berean, prestakuntza horietan ez parte hartzea erabakitzen duten langileek normaltasunez egingo dute beren eguneroko lana.

Ikastetxeetako prestakuntza. Lan-kontratudun hezitzaile guztiek borondatez parte hartu ahal izango dute ikastetxeek diseinatutako prestakuntza-planetan, betiere Ikasleenganako arreta bermatzen bada.

Alderdi espezifikoak:

- **Fisioterapeuten, Okupazio-Terapiako espezialisten eta ZHIen** prestakuntza lurralde artekoa da beti, eta BiziLabek antolatzen eta kudeatzen du; ZHIen kolektiboaren prestakuntza antolatzeko eta kudeatzeko, entzumen-desgaitasuneko koordinatzaileekin batera lan egiten da.
- **EHI-logopeda eta HLE-en** prestakuntza eskualdekoa, eskualde artekoa, lurraldekoa edo lurralde artekoa izan daiteke.

KOORDINAZIOA

Irakasleekiko, inklusioari laguntzeko aholkulariekiko eta ikasleen arretan inplikaturik dauden gainerako profesionaliekiko koordinazioa ikasle bakoitzaren lan-programetan ezarritako uneetan egiten da.

Ikasleei buruzko txostenak, haien lan-programak eta haien ebaluazioa irakasle tutoreei ematen zaizkie, ikasle bakoitzaren JPPan sar ditzaten. Era berean, kopia bat bidali zaio inklusioari laguntzeko aholkulariari.

Inklusioari laguntzeko aholkulariekiko koordinazioa BiziLabeko kokapenean edo ikastetxean egiten da, bakoitzak horretara bideratzen dituen egunetan.

Kolektibo bakoitzeko profesionalen arteko koordinazioak ere egon daitezke, eta, unean-unean, Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzak eskatuta.

Koordinazio horietan parte hartzea bermatzeko, ikastetxean beharrezkoak diren antolaketa-neurriak hartzen dira.

HLE langileen koordinazioko alderdi espezifikoak:

- **Koordinazioa ikastetxean:**
 - Langile horientzat egindako lan-planak koordinazio-uneak bermatu behar ditu ikastetxean, koordinaziorako eta materialak prestatzeko asteko 5 orduen (lanaldi osoa) edo asteko 2,5 orduen (lanaldi erdia) barruan. Plan horretan, koordinazio- datak eta -orduak, helburua eta eragileak agertu behar dira.
 - Ikastetxeko antolamenduan egin beharreko aldaketak ahalbideratuko dira lan hitzarmenean jasotako baldintzetan klaustroetan parte hartu ahal izateko.
- **Koordinazioa/prestakuntza dagokion BiziLabeko kokapenean.** Materialak koordinatzeko eta prestatzeko denboraren barruan, ikasturtean zehar banatutako 4 saiotarako denbora gordetzen da: lehenengoa irailean eta azkena ekainean. Ikasleen zuzeneko arretari kalterik eragingo ez dion denbora-antolamendua sustatu behar da. Irailaren lehen hamabostaldian izango ditu datak. Saio hauek derrigorrezkoak izango dira Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasleen eta hezitzaileen IX. hitzarmen kolektiboaren 10. artikuluan arautzen den bezala.

Ordezkaritzako kupoko EHI-logopedak koordinatzeko alderdi espezifikoak:

Ordezkaritzako kupoko EHI irakasleek eta logopeda lan-kontratadun langileek beren BiziLabeko kokapenean urritik maiatzera bitartean egiten den hileko mintegian parte har dezakete. Mintegi horrek hiru lurraldeetan emateko irizpide homogeenak ditu, eta BiziLabek koordinatzen du.

Okupazio-Terapiako espezialisten eta fisioterapeuten koordinazioko alderdi espezifikoak:

Okupazio-Terapiako espezialisten eta fisioterapeuten barne-koordinazioa lurraldekoa eta lurralde artekoa da.

Lurralde-koordinaziorako, kolektibo bakoitzak bere lurraldean koordinazio-plan bat egiten du.

Plan horretan honako hauek zehaztuko dira: koordinatzailea, parte-hartzaileak, bileren egutegia (data, lekua eta ordutegia), lan-proposamena (helburuak, edukiak, jarduerak...) eta parte-hartzaile guztien onarpena. Plan hori lurralde-arduradunari urriaren 31 baino lehen aurkezten zaio, gainbegiratu eta onar dezan.

Koordinatzaileen zereginak:

- Koordinazio-plana aurkeztea: helburuak, edukiak, datak...
- Bilkura bakoitzaren akta egitea.
- Akta lurraldeko arduradunari bidaltzea.
- Ikasturtearen amaieran memoria aurkeztea (proposatutako helburuen lorpen-maila, aktak, balorazioa, landutako materialak, etab.).

Koordinazio horretarako, urtean gehienez ere 4 online bilera izango dituzte, 2 ordukoak (ostirala edo arratsaldea).

Lurralde arteko koordinazio-bileretara, fisioterapeuten kasuan, lurralde-koordinatzaileak joaten dira, eta konpromisoa hartzen dute landutako gaiak gainerako kolektiboari helarazteko. Okupazio-Terapiako espezialisten kasuan, kolektibo osoa joango da.

BiziLabek koordinazio-bilerak koordinatu eta deituko ditu, jarraian agertzen diren egunetan.

Okupazio-terapeutak	Fisioterapeutak
Urriaren 23a	Urriaren 30a
Urtarrilaren 15a	Urtarrilaren 22a
Martxoaren 5a	Martxoaren 12a
Maiatzaren 7a	Maiatzaren 14a

Okupazio-Terapiako espezialistak laguntza-produktuak fabrikatzen eta banatzen dituzten enpresekin koordinatu behar dira, eskuragarri dauden produktuen inguruan eguneratuta egoteko, hauek eskatu eta jasotzeko.

FAMILIEKIKO HARREMANAK

Jarraibide hauen xede diren espezialistek informazioa ematen diete, irakasle tutoreekin lankidetzan eta beren eskumenen esparruan, ikasleen legezko ordezkari, ezartzen den aldizkakotasunarekin.

Alderdi espezifikoak:

- Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen familiei arreta emateko, **ZHI**az gain, lurraldeko koordinatzaileak ere laguntzen du ikasle horiek eskolatzeko.
- **EHI**- logopeda eta fisioterapeuta. Hiru hilean behin egiten da, eta lehenengo eta azken bilerak bat egiten dute ikasturtearen hasierarekin eta amaierarekin.
- **Okupazio-Terapiako espezialista**. Gainera, beharrezkotzat jotzen denean, jarraibideak ematen ditu egokitzapenen eta laguntza-produktuen maneiuari eta erabilerari buruz, bai eta okupazio-arlo guztietan ikaslearen autonomia hobetzearekin lotutako alderdiei buruz ere.
- **HLE**. Beharrezkoa denean, tutorearekin batera, ikasleen legezko ordezkariarekin egiten diren bileretan parte hartuko du ikaslearekin lotutako alderdiei buruz hitz egiteko eta esparru hauetan hobetu eta laguntze aldera.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean

Mikel Juaristi Izaguirre
ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA